



## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure asmoa, ekoizitako produktuak internet bidez saltzea da, hasiera batean behintzat. Horretarako, webgune bat egingo dugu eta bertan zehaztuko ditugu produktuen prezioak eta banaketa moduak. Webgunea egiteko, Wix orrialdetaz baliatuko gara, izan ere, doahinik da eta mugikorretara egokituta dago.

Bestalde, instagram kontu eta korreo propio bat edukiko dugu bezeroekin harremanetan jartzeko, horrela, bezeroek beraien zalantzak argitzeko aukera izan dezaten. Gure instagram eta korreoa hurrengo hauek dira, hurrenez hurren:



@luxilenpresa



luxilenpresa@gmail.com

Lehen esan bezala, gure asmoa hasiera batean, produktuak internet bidez saltzea da baina proiektua espero bezain ondo joatean bada eta gure produktuek arrakasta izaten badute, denda bat egingo dugu. Horrela, bezeroekin harreman estuagoa izango dugu eta gure enpresarentzat onuragarria izango dela uste dugu.

Bestalde komunikazio-kanalean fase hauek ere kontuan hartu behar dira:

Lehenik eta behin, bezeroek behar bat izan beharko dute gure produktuak erosteko, esaterako, behar hori, opari bat egitea izan daiteke. Ondoren, bezeroek eskaintzen dizkiegun produktuak ebaluatuko dituzte eta horren arabera, erosketa egingo dute. Behin, bezeroak produktua erostea erabaki duenean, produktua bezeroari iritsi behar zaio. Horretarako, GKS enpresaz baliatuko gara.

Prozesua ez da hemen amaitzen, izan ere, salmentaren jarraipena egitea oso garrantzitsua da bezeroaren asebetetzea jakiteko eta gure produktuetan aldaketarik egin behar dugun jakiteko. Jarraipen hori egiteko "Instagram" eta korreoa erabiliko ditugu.

